



Allik gezurtatu egin du bere «zuzenketa» politikoa presioen ondorioz egin zuenik / 6



Garaikoetxeak ETArri armak uzteko esan ziola ulertu du Caño EAEko kontseilariak / 7



Michel Marty: «zerbait grabea da idaztea, ez hiltzea esan nahi bait du» / 26

EUSKALDUNON

Egunkaria

Asteartea, 1991ko irailak 10 / II. urtea / 236. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

ZINEMA

Palestinar zikloa Donostian ikusgai

'Noce en Galilée' filmeak zabaldu zuen atzo Donostian zinemagintza palestinarri eskainitako zinema zikloa. Gaurtik eta ostirala arte, Oken-
do kultur etxean beste lau pelikula ikus ahal izango dira. / 23

Independentziaren aldeko mozioak kritikatu ditu EAJk

Joseba Egibar EAJko eledunarentzat, bide okerra da, independentziaren alde udaletxeetan mozioak aurkeztea. HBk proposatu eta EAren laguntzaz Bermeo, Oiartzun eta Etxarrin onartutako mozioak «esperimentutzat» jo zituen eta mozio hauek aurkeztea oso epe laburreko taktika dela esan zuen. Mozio hauen onarpena dela eta, EA HBrengana hurbildu nahian dabilela uste du Egibarrek, «azkenaldian makalduta bait zeukan hurbilketa». Atzo Bilbon ospatutako EBBko bilerako tarte batean esan zuen, aldarrikatzen direnak «planteamendu hutsak direla, benetakoa Euskadi batean ez dagoelako herri planteamendurako formulaziorik». / 5

Elkarte autonomo ez historikoak nazionalisten aurka

Espainiako elkarte ez historikoek autonomien arteko berdintasuna eta kompetentzi gehiago eskatu dute hitzarmen autonomikoaren aurrean. Beren ustez EAEk eta Kataluniak dituzten pribilegio eta aberastasunak denen artean banatzea exigitu dute. Juan Carlos Rodríguez Ibarra Extremadurako lehendakaria eta Alejandro Rojas Marcos Sevillako alkatea dira kexutsuen ageri direnetakoak. Lehenak «autonomi pobreek ahotsa altxatzea» eskatu du. Espainiaren batasunaren inguruko polemikak biziz bizirik dirau bihar ospatuko den Kataluniako Diada egunaren bezperetan. / 14-15

BESTERIK

G I Z A R T E A
Ikastolen eta Hezkuntza Sailaren akordioa gaur zehaztuko da / 8

E K O N O M I A
Zuberoan Komunikazio Zentrua irekiko da / 12

K I R O L A
Volta a Catalunya gaur erabakiko da erlojupeko etapari / 22

Sindikatuak ez dute Acenor enpresako espedientea onartu

Acenorreko sindikatuak aho batez bota zuten atzera al-tzairu berezien enpresako zuzendaritzak ezarri nahi duen sei hilabeteko enplegu erregulazio espedientea. Gasteizko Gobernu Lan Sailak espedientea onartzen badu, Acenorreko bost lantegietako 3.500 langileetatik 3.100en-
gan eragina izango luke neurri honek. UGT, CCOO eta ELAK plangintza estrategikoa negoziatzea exigitu dute espedientea onartu aurretik. / 12

Lurraldea hizketan hasiko da akordio bila alderdiekin

Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi guztiekin kontaktuetan hasiko da egunotan Lurraldea koordinakundea. Galdoskin akorditutako A-4 trazaketak aurrera egin dezan, aukera guztiak agortuko ditu Lurraldeak. Gaur bilduko da Gipuzkoako Diputazio kontseilua Ramos Hildagoren ordezkari enpresaren aferra erabakitzeko. Aurreko bi kontseiluetan atzeratu egin dute erabakia. / 5

Industria arloak egoera larria bizi du Durangaldean

Durangaldeak, industria arloan bizi duen egoera oso larria dela salatu dute ELA, CCOO eta UGT sindikatuak. Sindikatuak administrazioen «utzikeria» salatu eta protesta ekintzak iragarri dituzte. Ostegunean, adibidez, manifestaldia izango da Durangon. Azken hilabeteetan, 375 lanpostu galdu dira Durangaldean, eta 1.300 daude erregulazio motaren batekin. / 13



Manifestari mazedoniarrek erreferendumeko emaitza ospatzen Skopje hiriburuan.

OLEG POPOV

Jugoslaviatik bereiztea erabaki du Mazedoniak

Independentzia erreferendumak tentsiogune berria piztu du Balkanetan

Igandean eginiko erreferendumen ondoren, Mazedoniak Jugoslaviatik bereiztea erabaki du eta horrela Jugoslaviako Federaziotik irten nahi duen hirugarren errepublika bihurtu da. Boto guztiak zenbatu gabe bazeuden ere, jadanik emaitza ziurtat jo daiteke, independentziarena, botoen % 74,17 lortu bait du baietzak.

Eslovenia eta Kroaziaren atzetik hirugarren Errepublika independente bihurtu arren, zaila izango du Mazedoniak independentziaz aske gozatzea. Serbia, Bulgaria, Grezia eta Albaniak subiranotasuna lortu duen errepublika honetan interesak jarriak dituzte.

Albaniak lurralde mazedoniarreko zati bat eskatzen du, bertoko gutxiengo albaniarra (biztanlegoaren % 30) bizi dena hain zuzen. Albaniarren lurraldean ezetza nagusitu

zen bozketan. Mazedoniaren independentziak gehiago nahaspilatu du Jugoslaviaren etorkizuna, eta dagoeneko bertoko serbiarrak Federa-

ziotik ez bereizteko borrokan egiteko prest daude. Kroaziako gerra, birtartean, zertxobait baretu zen atzo. / 16

Tadjikistanek ere independentzia aldarrikatu du Soviet Batasunean

Soviet Batasuneko beste errepublika batek, Tadjikistan-ek, atzo aldarrikatu zuen bere independentzia, Legebiltzarrean egindako pleno berezian ebazpen bat onartu ondoren. Ebazpen honek zioen, Tadjikistan eskubidezko estatu subirano eta demokratikoa zen. 'Interfax' agentziak aditzera eman zuenez, Tadjikistaneko Legebiltzarrak irailaren 9an Independentziaren Eguna ospatzea erabaki zuen. Dagoeneko Soviet Batasuneko hamabost errepubliketatik

hamaika independentziaren alde azaldu dira.

Tadjikistan Ertasiako errepublika musulmana da. Errepublikan 5.112.000 lagun bizi badira, 3 milioi inguru tadjikak dira eta biztanlegoaren % 23 uzbekak. SESBeko hiriburuan, berriz, Europako Kooperazio eta Segurtasun Kontseiluko eta Baltiko errepubliketako Atzerri ministroak bildu ziren giza eskubide eta estatu demokratikoen finkapenaz hitz egiteko. / 17